

- **Irakasleen gida** lagun duela aurkeztu da jarduera bakoitza. Hartan azaltzen dira helburuak, loturiko edukiak, metodoa, material didaktiko osagarria, ordenadorean edo bitarteko konbentzionalen bitartez landu ahal izateko jarraibideak eta ebaluaziorako proposaturiko bidea.

- Halaz ere, modu **zabalean** itxuratu dira jarduerak; halatan, beren irakasgaira edo estilo pedagogikora **berregokitu ahal izango dituzte irakasleek** jarduera bakoitzean proposaturiko edukiak, dinamika edota ebaluatzeko modua.

- **Irakasleen dinamizatzailer papera:** Edukiak, bitartekoak eta argumentu- aitzakia eskainiko ditu baliabide didaktikoak. Baina funtsezkoa izango da kasu guztietan irakasleek dinamizatzailer gisa jokatu duten papera:

1. Sortuko diren zalantzak ebazterakoan.
2. Ikastaldea jarduera bitartean dinamizatzeko.
3. Amaierako sintesia egiteko.
4. Ikasle bakoitzaren ikaskuntza eta tresnaren beraren erabilgarritasuna ebaluatzeko.